




prozesu batek izan ditzakeen faseak identifikatzeko eskatu zaie eta honakoak identifikatu dituzte:



- Fase hauek ikaste prozesu gisa ulertzen dira. Hemendik aurrera, ikastetxeetako aholkulariek (alegia, dagoeneko Ikaskide Proiektuan ikaste kooperatiboaren gainean ikaste prozesua burutu dutenek), euren ikastetxeko gainontzako irakasleekin ikaste kooperatiboaren gaineko ikaste prozesu bat sustatu beharko dute goiko fase hauek jarraituz.
- Fase hauek burutzeko gurekin formazioan egon diren irakasleek badute:
  - ✓ ezagutza: orain arte aholkulariekin batera ikasitako guztia;
  - ✓ esperientzia: aholkularien laguntzaz garatutako proiektuak;
  - ✓ hainbat dokumentazio, tresna, esperientzia ezberdinen adibideak, bloga...
- Irakasleek badute, beraz, euren maleta nahiko beteta ikaste kooperatiboaren inguruan.
- Hemendik aurrera maleta hori izango dute errekurtsio euren ikastetxeetako gainontzako irakasleak ikaste kooperatiboaren bidean animatu eta laguntzeko; alegia, eskola kooperatiboa sustatzeko.
- Hemendik aurrera, gero eta modu autonomoan jardutea dagokie. Aholkularien laguntza gero eta txikiagoa izango da, eurak gero eta prestatuago dauden heinean.
- Orain arte betetzen ari diren maleta izango dute tresna nagusia prozesu honetan autonomo bilakatzeko; beraz, maleta hori ondo ezagutu, antolatu eta erabiltzen ikasi behar dute. Eta horixe izan da, hain zuzen ere, mintegi honetan egin duguna.
- Ikastetxeetako irakasleei USB bat eman zaie "maleta" horren adierazle fisiko gisa.
  - Maleta horretan hainbat dokumentu dituzte, orain arteko prozesuan eskuartean erabilitako dokumentuak eta tresnak hain zuzen.
  - Bestalde, Bloga ere eskaini zaie (<http://ikaskide.wordpress.com/>), hor ere egindako ibilbide honetan izandako esperientziak, mintegiak, jardunaldiak, beste

ikastetxeen adibideak, dokumentazio ugari... aurkituko dituztelako.

### **Autonomoki funtzionatzeko bidean, zer egin betetzen ari garen maletarekin?**

- **Lehenengo urratsa:** USB-an dituzten dokumentu guztiak eta blogean aurkitu dezaketen informazio guztia antolatu, aholkularitza prozesu bat aurrera eramateko identifikatu dituzten faseen arabera.
  - Horretarako, zera egin dute irakasleek: Taldeka jarrita, USBa eta Bloga aztertu, eta bertako dokumentazioa atalka antolatu, talde bakoitzak ondoko bi galderei erantzun behar izan duela:
    - ✓ Zeintzuk dokumentu eta tresna erabili ditzakegu daukagun maletatik hasierako fasean oinarrizko printzipio teorikoak ezagutu eta lantzeko?
    - ✓ Zeintzuk dokumentu eta tresna bigarren fasean diseinua egiteko?
    - ✓ Zeintzuk hirugarrenean aplikazio unean?
    - ✓ Eta zeintzuk ebaluazio fasean?.
- **Bigarren urratsa:** talde bakoitzak bere ikastetxean talde kooperatiboen gainean lankideak trebatzeko aholkularitza plana irudikatu eta diseinatu. Horretarako honako galderei erantzun diete:
  - ✓ Zenbat saio aurreikusten dituzue fase bakoitza burutzeko?
  - ✓ Zertarako saio bakoitza?
  - ✓ Nola eramango dituzue aurrera saio horiek?
- **Hirugarren urratsa:** taldeka egindako lana gainontzeko taldeekin partitu. Hauexek ondorioak:
  - **Lehenengo fasea: Teoria - oinarrizko printzipioak**
    - ✓ Beharrezko saioak: 1`30ko 4 saio.
    - ✓ Saio guztiek teoria eta praktika uztartuko lituzkete, hauen artean loturak aurkitzen saiatuz.
    - ✓ Aurrezagutzak aktibatzen zertzeladak eskaini (power point bidez, etab.)
    - ✓ Motibazioa abiapuntu duten talde dinamikak egin, bide batez, talde kohesioa indartu.
    - ✓ Norberak teoria irakurri, ondoren binaka konpartitu, gero lau taldeetan eta ondoren talde handira eraman.
    - ✓ Irakasleek proiektua posible dela, erreal dela, etab. ikusteko, esperientzia bat entzun/ikusi.
    - ✓ Egoera errealak, irakasleek dituzten zalantzak, etab. argitzeko aprobetxatu.
    - ✓ Dokumentu egokienak aukeratu eta irakasleei eskaini, honela hauek

oinarrizkoa jakingo lukete.

○ **Bigarren fasea: Sekuentziaren diseinua**

- ✓ Sekuentzia diseinatzeko gida erabili.
- ✓ Sekuentzia baten diseinua guztiok batera egin eta, ondoren, hori oinarri hartuta bakoitzak berea diseinatuko du → talde txikietan eta talde handian joango dira hau garatzen.
  - Hau erreala ez dela komentatu da, diseinu hipotetiko bat egiteak denbora asko eramango lukeela, hori egiteaz gain, bakoitzak berea egin beharko bailuke eta ez dago denborarik. Mota guztietako iritziak egon dira.
- ✓ Esperientzia eredugarriak erreferente moduan izatea oso aberasgarria eta lagungarria izango litzatekeela aipatu da → hurrengo mintegirako proposamena izan daiteke hau.

○ **Hirugarren fasea: Sekuentziaren aplikazioa**

- ✓ Irakasleen aspektu emozionala lantzea guztiz garrantzitsua.
- ✓ Sekuentzia aurrera eramaten ari den irakasle baten gelara joan saioaren bat edo beste ikustera.
- ✓ Irakasleen beharren arabekoak izango dira saioak, eta hauetan izandako arazoak, gatazkak, zalantzak, etab. aztertuko dira, baita erantzuten saiatu ere.
  - Saioak antolatu gabeak izatea zalantzan jarri da, momentuko beharrak asetzeko ondo, baina jarraipena, etab. egiteko beharrezkoa ikusi da elkarrekin antolatzea, hala ere, batzuetan guztiok batzea... zaila dela aipatu da; hori dela eta, bitarteko eta tresna alternatiboak bilatu beharko lirateke.

○ **Laugarren fasea: Ebaluazioa**

- ✓ 2 saio ikusten dira beharrezko:
  - Saio bat hasieran, zer ebaluatuko dugun pentsatzeko
  - Bigarren saioa, bukaeran
- ✓ Helburuak:
  - Prozesua nola joan den ikustea; batez ere, hobetu beharrekoak detektatzea.
  - Ibilbide guztia eta erabilitako tresnak eta materiala baliagarria izan ote den jakiteko, berreskuratze lana eginez.
    - ❖ Zer egin dugu?
    - ❖ Zer izan zaigu baliagarri ikasturte honetan?
  - Aholkularien lana baloratzea.
- ✓ Horri guztiari heltzeko giro egokia egotea ezinbestekoa da, balorazio errealak jaso aldera.

## **Eta hemendik aurrera, zer?**

Ikusi denez, orain arte Ikaskide Proiektuan parte hartu duten irakasleek badute nahikoa tresna eta gaitasun hemendik aurrera prozesu autonomoa aurrera eramateko. Hala ere, ziurrenik ez dute guztiari erantzuteko materiala izango, eta hainbat zalantza, beldur, kezka, duda, interes edo behar berri ere izango dituzte.

Hori dela eta, hemendik aurrerako mintegiak horretarako erabil ditzakegu. Alegia, prozesu autonomo horretan laguntza izateko eran antolatuko ditugu hemendik aurrerako mintegiak, ikastetxeei modu autonomoagoan egingo duten bide honetan agertuko zizkien zalantzak, izango dituzten hutsuneak edo beharrak erantzuteko eran.

Izan ere, bazen mintegi honen helburua ere zalantza, beldur, behar, hutsune horiek zeintzuk izan daitezkeen aurreikustea, aholkulariek hurrengo saioak horren arabera antolatzeko asmoz, baina ez dugu horretarako denborarik izan azkenean. Beraz, honakoa proposatzen da:

- Hausnarketa hori etxean egin eta aholkulariei postaz helarazi. Horretarako, honako galdera hauei erantzutea proposatzen da:
  - Ze behar dituzue zuek orain arte betetzen ibili zareten maletan duzuen guzti horrekin erantzuteko gai ez zaretenak?

Eta, behin irakasleek mintegiaren balorazioa eginda, saioa bukatutzat eman da.